

Hau lotsa! 1

–Arratsalde on, familia!

Etxean?
Zer zabilta hemen? Ez al zenbiltzan Ameriketean?
Zu ez al zenbiltzan Kanadan?
Nekane eta zu ez al zenbiltzaten Estatu Batuetan?

–Ba ez, ez nabil Estatu Batuetan, eta ez nabil Kanadan. Hementxe nago, etxean. Ez dakizue zer gertatu zaidan... Atzo, goizeko zortzietan Loiuko aireportuan nengoen, eta, begira: arropa hau bera neraman! Gaueko hamarretan Kanadako aireportuan nengoen, poliziarekin hitz egiten. Eta orain, ikusten duzue, etxean berriro.

Barkatu? Zer gertatu da?
Broma izango da!

–Ez da broma, ez! Txistea ematen du, baina ez da broma.

Baina zer gertatu da? Kontatu!

–Ai... Gauza bat pentsatu dut: zuek asmatuko duzue zer gertatu zaidan! Zuek galderak egingo dituzue, eta nik bai ala ez erantzungo dizuet. Ados? Ea horrela pixka bat alaitzen naizen!

Ados. Nekane eta zu zindoazten?

–Ez, Nekane ez zetorren nirekin: bakarrik nindoan.

Kanadara zertara zindoazen, ingelesa ikastera?

–Ez, ez nindoan ingelesa ikastera.

Zertara zindoazen, oporrak pasatzera?

–Ez, ez nindoan oporrak pasatzera, lan egitera nindoan.

Jatetxe batean lanera zindoazen?

–Ez, ez nindoan jatetxe batean lan egitera.

Au pair lana egitera zindoazen?

–Bai! Au pair lana egitera nindoan! Ondo!

Kanadan lan egiteko beharrezkoa da bisa?

–Mmm... Bai, Kanadan lan egiteko beharrezkoa da bisa. Kontxo, azkar asmatuko duzue!

Eta zuk bazeneukan bisarik?

–Ba... ez, ez neukan bisarik.

Bazenekien legearen kontra ari zinela?

–Bai, banekien legearen kontra ari nintzela. Baina, jope, "legearen kontra"! Zer hitz gogorak! Au pair lana ez da benetako lana, ezta? Oso bisa gutxi ematen ditu Kanadak, eta, nik eskatu nuenean, ez zegoen aukerarik! Bukatu egin ziren!

Hango familiakoek bazekiten bisa gabe zindoazela?

–Bai, haiek bazekiten ni bisa gabe nindoala. Baina haiek ere ados zeuden, e!

Poliziak bazekien ez zeneukala bisarik?

–Ba, ez, hasieran poliziak ez zekien, baina gero, ba...

Aduanako kontrola pasatu zenuen?

–Bai, arazorik gabe pasatu nuen aduanako kontrola.

Aduanako kontrolean poliziak galdetu zizun ea bisarik bazeneukan?

–Ez, aduanako kontrolean ez zidaten galdetu bisari buruz.

Aduana pasatu ondoren, segurtasun-kontrola zegoen?

–Hoori da. Aduanako kontrola pasatu nuen, baina gero segurtasun-kontrola zegoen. Gertu zabilzate...

Maletan gauza arraroren bat zeneraman?

–Iepa! Galdera ona! Mmmm... gauza arraroren bat... Zehaztu gehiago!

Maletan debekatutako produktuak zeneramatzan?

–Bai, debekatutako produktuak neramatzan. Bueno, debekatutako produktuak... Oso gauza normala zen, e!

Guraizeak zeneramatzan?

–Ez, ez neraman guraizerik.

Kroketak zeneramatzan?

–Kar-kar-kar! Ez, badakizue asko gustatzen zaizkidala, baina ez neraman kroketarik, ez.

Urdaiazpikoa zeneraman?

–Bai horixe! Urdaiazpikoa neraman.

Ez zizuten utzi Kanadara sartzen, urdaiazpikoa zeneramalako?

–Ez, ez zen horregatik izan. Arazoa ez zen urdaiazpikoa izan.

Badakit zer gertatu zen!